


# txintxarri



## Epaitu dituzte, eta sutan amaitu dute

Santa Ana eguna ospatu zuten lasarteoriatarrek asteazkenean. Parodiarekin amaitu zuten eguna / 6-9

## Herritik, Melillara

Mugak Zabalduz karabanarekin astebeteko egonaldia egin du Maider Agirre lasarteoriatarrak / 2




Zataraingo obrek ezinegona sortu dute, eta alkateak San Frantzisko kaleko bizilagunak hartu ditu / 5

Hogeita bost lasarteoriatarrek hartu dute parte aurtengo Getaria-Zarautz igeriketa frogan / 10

R.P.S. 179/151.L.G.

**%30** deskontua

EGUZKITAKO BETAURREKOEN bilduma BERRI GUZTIETAN

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)   


ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Baliogarria 2017/09/15 arte, 50€-tik gorako betaurrekoetan. Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan





Amaia Agirre lasarteoria gainerako boluntarioekin batera Melillako egonaldian egindako ekitaldi batean. AMAIA AGIRRE

# "Melillan guregan zuten egoera aldatzeko itxaropena"

**MAIDER AGIRRE MUGAK ZABALDUZ KARABANAN PARTE HARTU DUEN HERRITARRA** Melillara abiatu zen karabana solidarioa iragan uztailaren 14an. Astebeteko ibilbidea egin dute bertako errefuxiatuei laguntza emateko. Bertan bizitakoaren berri eman dio TXINTXARRI-ri

## Maddi Noriega

Errefuxiatuen jatorrizko herrien egoera politiko eta ekonomikoan Europak duen erantzukizuna salatzeke, *Mugak Zabalduz* karabana Melillan izan da. Euskal Herritik ere, herritar hainbatek egin dute bidaia, bertakoei laguntzeko asmoz. Bertan parte hartu dutenen artean, izan dira lasarteioritar bat baino gehiago, tartean Maider Agirre.

Ceuta eta Melillan "mugen blokeoa" bertan behera uzteko eskaera egin du karabanak: "Muga

pasatzen saiatzen diren pertsonak, errepresio bortitza jasaten dute, eta, berehalako itzulketek etorkinen asilo eskubidea urratzen dute".

## Nolako izan da uztailaren 14an hasitako bidaia Melillara heldu arte?

Gogorra, itxaropentsua, neketsua, aktiboa, aktibista, alaia, tristea, kementsua, bidegabekeria zikindua, erresistentzia eraikia. Era guztietako emozioez betetako koktel koloreanitz. Behin bertara iritsitakoan, sentimendu sorta horiek bozgoragailuz indartu ziren.

## Nolakoak izan dira Melillan igarotako egunak? Zein zen zuen eginkizuna bertan? Zein egoera bizi izan dituzu?

Melillan astearte eta ostiral (uztailaren 18tik, 21ra) bitartean egon ginen. Bertan lanean ari diren eragileek antolatutako programa jarraituz, manifestazioak eta protesta ekintzak egin genituen, bakarrik dauden adingabeekin egon ginen, eta mugara hurbildu ginen zamalarien lan baldintzak gertutik ikustera.

## Zein ziren baldintzak?

Melillako eragileen egoera oso latza da. Oso bakarrik daude, eta bertako gobernu xenofoboak behin eta berriro jartzen dizkien oztopoei gailenduz, berebiziko esfortzuz eta erresistentziaz egiten dute lan. Hortaz, gure eginkizuna hirukoitza zen Melillan. Hara joan ginen karabanaren aldarrikapen nagusiak plazaratzera eta jendartea sentibilizatzen. Baina, horrez gain, bertan lanean ari diren aktibisten hauspo bihurtu ginen. Babestuak sentitu ziren. Bostehun pertsonen sostengua jaso zuten. Haietako batek ahotsa infoko kazetariari esan zion moduan: "Nabarmen geratu da ez garela zoro talde bat. Hala bagina, ez gaude bakarrik, gu bezalako zoro asko dago, eta, agian, besteak dira zoroak, gobernuaren aurka protesta egiten ez dutenak".

## Beldurrik sumatu al duzue bertako artean?

Melillako biztanleen artean beldur handia sumatu genuen. Jende askok helarazi zigun gure aldarrikapenekiko adostasuna, eta gure esku jartzen zuten egoera aldatzeko itxaropena. Gaitasun hori beraien esku ere badagoela esaten genienean, eta altxatzera animatzen genituenean, beldurra adierazten ziguten.

## Zer dio legeak zamarien inguruan?

Legeak dio onartuta dagoela pertsona batek soinean eraman dezakeen karga osoa, mugaren alde batetik bestera eramateko. Negozioa egin dago: zamalarien miseriaren kontura autoritateak eta kontrabandistek izugarriko etekinak sakelaratzeko dituzte. Berrogeita hamar, hirurogei, laurogeita hamar kilo bitarteko fardelak prestatzen dituzte. Fardelak kamioietan daude. Gizonek kamioietatik jaitsi eta arrastaka eramaten dituzte mugara.

## Eta behin mugara iritsi direnean?

Mugan emakumeak daude zain, fardelak bizkarrean jaso eta soinean Marokora eramateko, mugaz bestaldera. Mugaren korridoretik pasatzen diren bitartean poliziek behin eta berri jipoitzen dituzte. Gutako batzuk mugaz bestalde ginen bitartean zamalari talde batek zauri orbainak erakutsi zizkieten gipuzkoar taldekideei, eta ez da broma.

Ez dira betetzen espainiar legediak onartzen dituen lan baldintza minimoak. Ez dira langile kontsideratuak. Ezta pertsona ere. Kargarako abereak baino okerrago tratatzen dituzte. Eta estigma hori

Melillako jendartera zabaltzen da. Mespretxatuak dira, arbuiatuak. Zenbaitzuk "dortoka" deitzen diete mespretxuz. Baina hiru bider dira erresistente: pobre direlako, etorkin direlako eta emakume direlako. **Arazorik izan al duzue bertako polizierekin? Bestelako arazorik?** Karabanak izaera bakezalea duenez, Poliziak jarri dizkigun mugak errespetatu ditugu.

Egoeraren arabera, haien malgutasuna neurtzen genuen, ahal genuen neurrian muga horiek zeharkatuz. Hau da, honaino esaten baziguten, pixka bat harago joaten saiatzen ginen, soka ahal bezainbeste tinkatuz.

Nabarmena zen poliziek indarkeriarik gabeko esku hartzearen agindua zutela. Bazekiten komunikabide asko gurekin batera etorri zirela eta gobernu ez zegoen prest horren kostu mediatikoa ordaintzeko. Osteguneko (uztailaren 21eko) manifestazioren bukaeran hesian gure aldarrikapenak kateatu genituen. Guardia zibilek, ordea, kartelak jaso zituzten, eta guri itzuli zizkiguten. Berriz jarri genituen, eta haiek berriz jaso eta guri eman. Bizpahirutan errepikatu zen hau, poliziek kartelak hartu, puskatu eta bota zituzten arte.

## Zein egoeratan bizi dira Melillan dauden errefuxiatuak?


Gaizki. Oso gaizki bizi dira. Pertsona ugari joan gara, eta bakoitzak hainbat pertsona eta errealitate ezagutu ditugu.

## Bertan direnek badute egoteko lekurik?

CETI bat etorkinen behin behineko egonaldi-rako zentroa da. Bertara eramaten dituzte muga igarota harrapatzen dituzten bakarrik dauden adingabeak, hemezortzi urte betetzen dituzten arte.

Behin adingabe izateari uzten diotenean kalean lagatzen dituzte. Bakarrik. Esku hutsik. Jatekorik gabe, aldatzeko arroparik gabe. Ezer gabe. Batek daki zenbat urtez, CETIan bizi izan ondoren. Une honetan laurogei adingabe inguru bizi dira Melillako kaleetan.

Jarraitu irakurtzen txintxarri.eus-en Maider Agirre Melillan eondako boluntarioari egindako elkarrizketa.



# Iraultza Lasarte-Oriako kaleetan, umoretik

Gure herriko kale eta bazterrak hankaz gora jarri dituzte asteburuan 'Femmes' antzezlaneko lau protagonista bihurriek. Hori ez da izan egunotako kultur ekintza bakarra, ordea: rock giroa eraman du Zabaletara Azkaiter Pelox Rockabilly Riot taldeak

## Iñigo Gonzalez

Lasai izaten ari zen joan den asteko ostiral arratsaldea. Ez zen ari gertatzen ezer aipagarririk, Hortzmuga teatroaren *Femmes* antzezlaneko lau protagonistak Okendo plazara iritsi ziren arte. Hankaz gora jarri zituzten herriko kale eta bazterrak. Bestela esanda, iraultza ekarri zuten Lasarte-Oriara, umoretik.

Kalean ikusi eta entzuten dutenetik abiatzen dira lau atso bihurriak *iraultza txikiak* egin eta ezarritako ordena hausteko. Kale antzezlanaz gozatzera gerturatu ziren herritar ugariak gertutik ikusi zuten hori. Adibide bat: lapurrak bailiran, koloretako zapiekin estali zituzten aurpegiak atsoek, eta Artizar tabernara sartu ziren. Horieta batek gatibu hartu zuen herritar bat, makulua haren lepo inguruan jarri eta ikusleei mehatxu eginez. Poz-pozik irten zen beste bat, anis botila bat eskuetan zuela. Beste biek oilasko bat atera eta tabernaren mahaietako batean eserita zegoen ikusle bat zirikatzen joan ziren. Barre algarak etengabeak izan ziren.

Plazatik Kale Nagusirantz abiatu ziren, eta euren *iraultza txikiak* segitu zuten. Trafikoa eten zuten, ikusleekin batera errepidean eseriz; atsoetako bati



Herriko kale eta bazterrak aztoratu zituzten lau atso bihurriek. TXINTXARRI

fardela zikina aldatu, eta, errugbiko baloi bat bailitza, hainbat pase egin zituzten euren artean; erditzen ariko balitz bezala jarri zen atsoetako bat; anbulantzia bat ere irudikatu zuten, sirena eta guzti... Esan bezala, umoretik abiatuta, herriko kaleak eta herritarrak aztoratu zituzten.

Hortzmuga teatroak sortu eta plazaratu du antzezlan. Izpiñe Soto, Alejandro Antunez, Begoña Krego eta Arantza Goikoetxea dira aktoreak. Gorka Ganso da eszenen zuzendaria.

Bestalde, Kultur Kale zikloak rock giroa eraman zuen Zabaleta auzora larunbatean. Bergarik etorritako Azkaiter Pelox Rockabilly Riot taldea arduratu zen arratsalde goibela alaitzeaz. Gogotsu ekin zioten emanaldiari musikariak; ikusleek ere behin eta berriro eskertu zuten euren lana, txaloen bitartez. Jotzen hasi eta ordu erdi ingurura, ordea, euriak zapuztu zuen musika giroa. Ez du zorte askorik aurten Kultur Kale zikloak. Kontzertua bertan behera utzi zuten, eguraldi txarragatik.

## KZguneko iraileko ikastaroetan izena emateko epea ireki dute

Abuztuan itxita egongo da Lasarte-Oriako KZgunea, baina iraileko eta urriko ikastaroen egitaraua prest dute

### Txintxarri

Irailaren 1ean irekiko dute berriro Lasarte-Oriako KZgunea, abuztuan oporrak direla-eta itxita egon ondotik. Hala eta guztiz ere, iraileko eta urriko ikastaroen egitaraua prest utzi dute, eta

Internet bitartez izena eman daiteke dagoeneko.

Ondorengo ikastaroak antolatuta dituzte irailerako: Oinarrizko Internet; Software librea; Sare sozialak 2.0; Irudia; Google apps; Smartphoneak eta tabletak; eta

Programazioa eta Garapena. Urrian ere ikastaro horiek izango dira. Ordutegi berri KZgunearen webgunean jakin daiteke.

Ikastaro horiek aproposak dira teknologi berrien munduan lehen urratsak egiteko. Doakoak dira ikastaro guztiak, eta euskaraz zein gazteleraz jaso daitezke.

Goizez eta arratsaldez parte hartu daiteke ikastaro horietan. Gazteleku izango dira eskolak, Jaizkibel plazan.



NEURE KABUZ

MAILU ARRUTI

## Oporrak ez dira derrigorrezkoak

"Oporrak ez dira derrigorrezkoak. Borondatezkoak baizik. Badakit langileen eskubide garaipen bat direla, baina niri asko gustatzen zait lan egitea eta lantokian geratuko naiz." (Cristina Cifuentes. Madrilgo komunitateko presidentea.)

Alfonbra azpitako hautsak garbitzen geratuko da noski. Zer garbitua badaukate eta. Faena ederra egin die bere menpeko langile "txupakulosei". Ea orain zein den gorantz promozionatu nahi duen langile ausarta zeinak esango duen bera badoala oporretara.

Oporrak suprabaloratuak omen daude. Hil ala bizikoak ez direla badakigu. Tamalez oporrik hartu ezin duen langile asko dago bere prekaritate ezpatak uzten ez diolako. Autonomo gizagaixoa, bezeroak galtzeko beldurrez, familia oporretara bidali eta bera asteburuetan joanez dabilena. Zer esanik ez opor iraunkorretara kondenatua dagoen lanik ez duen langilea.

Azala behar du horrelako baieztapenak egiteko. Eredu eman nahian bezala. Beste arlo askotan ikusi nahiko genuke eredu. Zintzotasunean, leialtasunean, efektibotasunean etab.

Baldekadaka dirua lapurtu, lapurtzen jarraitu eta hala ere katalanei astero diru publikoa zertan gastatzen ari diren exijitu, kontu-hartzaileen izenak eskatuz.

Baina modu honek funtzionatzen du. Zergatik? Oporrak debekatzea, murriztea, horrela "a la brava" ez da politikoki zuzena. Beraz horrela esanez gero, langilearen teiltatu gainean uzten du pilota. Bere kontzientzia ahulean. (Nagusia ez badao, nola joango naiz ba ni.)

Entzun, entzun, kras, kras, kras, guraize soinu entzuten dut jada. Zuek ez?

## Rafa Diez abuztuaren 17an askatuko dute, Bateraguneko azkena

Rafa Diez LABeko idazkari nagusi ohia abuztuaren 17an aterako da El Duesoko kartzelatik, Santoñan (Kantabria, Espainia). *Bateraguneko* azken kartzelaratua da Diez lasarteoriatarra.

Arnaldo Otegiarekin batera, ezker abertzalearen estrategia aldaketaren sustatzaile nagusia izan da Diez. 2009ko urriaren

17an atxilotu zuten, eta beste zazpi kideekin batera auzipetu zuten.

Sei urte eta erdiko kartzela zigorra beteta aterako da kalera. Hamazazpi hilabete balditzapean aske egon zen, ama zaintzeko.

LAB sindikatuko buruzagi historikoa da Diez. 1980ko hamarkadan sartu zen zuzendaritzan, Michelingo langile zela. Parlamentarioa ere izan da Eusko Legebiltzarrean eta Espainiako Kongresuan.

**Azken gelak!**

# Mauricio

**IRAILAREN 26TIK URRIAREN 4RA**  
Noaok gidatutako talde bidaia.  
Lasartetik irtenda.

**NOAOO**  
BIDAIAK

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Helduek zein txikienek gozatzeko aukera izango dute auzoko festetan. TXINTXARRI

# Basaundi bailarara zabalduko da algara

Kontzertuak, mus txapelketa, futbol partidak, lehiaketa gastronomikoak eta beste egingo dituzte asteburuan eta astelehenean Basaundi bailarako jaietan. Junior Lee taldeak joko du San Inazio egunean. Haurrentzako ekitaldi mordoia prestatu dute

## Txintxarri

Oria auzoan lehertu zen festa orain bi aste, eta, asteburu honetan, Basaundi bailarari iritsiko zaio txanda. San Inazio eguna iristear da, eta auzoan dena prest dute asteburu jai giroan pasatzeko. Adin tarte guztientzat pentsatuta egin dute egitaraua, antolatzaileek jakitera eman dutenez. Kontzertuekin,

puzgarriekin, herri bazkariarekin eta gastronomia lehiaketekin izango dute auzotarrek ongi pasatzeko aukera.

Larunbatean, hilaren 29an, hasiko da festa; haurrentzako tailerrak egingo dituzte arratsaldean, eta rock taldeek girotuko dute gaua. Baina egun handiak igandea eta astelehena izango dira. Igandean frontoian

barrenea izango da, eta ondoren ezkongabeen eta ezkonduen arteko betiko partida jokatu dute. Bazkal aurretik pintxopotea egongo da auzoko tabernetan eta txosnan.

## Mus txapelketa

Bazkal ostean karta zaleek hitzordua izango dute: mus txapelketa jokatu dute

## Hiru urterako hitzarmena egin du udalak Megaba elkartearekin

Urtean 5.100 euro inguru jasoko ditu elkarteak errege magoen kabalgata antolatzeagatik urtarrilaren 5ean

## Txintxarri

Udalak hurrengo hiru urteetan errege magoen kabalgata antolatzeko laguntza emango dio Megaba elkarteari; horretara konprometitu da Jesus Zaballos alkatea. Ondorioz, Megaba

elkarteak hiru urteetan 15.000 euro baino gehiago jasoko du. Aurten 5.105 euro emango dizkiote. Hurrengo urtean, berriz, 5.176 euro. Eta, 2019an, 5.248 euro. Horrez gainera, udalak udal instalazioak utziko dizkio

elkarteari, tasarik kobratu gabe, elkarteak bere jarduera bete dezan.

Trukean, Megaba elkarteak urtarrilaren 5eko desfilea antolatuko du, eta karroza prestatu. Atsotakar egoitzara ere joango dira, opariak banatzera.

Gainera, errege magoak hauren eskutitzak jasoko dituzte Okendo plazan eta Brigidatarren komentuari inguruetan. Udaletxeko balkoira ere igoko dira karameluak botatzera.

## Egitaraua

### Uztailaren 29a

- 19:00: Haurrentzako tailerrak.
- 21:00: Rock kontzertuak.

### Uztailaren 30a

- 11:30: Herriko barrenea, frontoian.
- 12:00: Ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol partida, frontoiaren ondoko areto futboleko kantxan.
- 12:30: Pintxo-potea, auzoko tabernetan eta txosnan.
- 16:30: Mus Txapelketa, Basaundi bailarako enparantzan.
- 17:00: Apar festa, teniseko pistan.
- 19:30: Patata tortilla lehiaketa (etxean egin beharko dira, eta ordubete lehenago aurkeztu).
- 22:00: Berbera joko du Ibai Berriak taldeak, enparantzan.
- 01:00: DJa, enparantzan.

### Uztailaren 31

- 09:00: Martxa erregulatua. Irteera: enparantzan.
- 10:00: Galeper botatzea, Buruntz-Azpi elkartearen eskutik.
- 11:00: Haur jolasak, Basaundi bailarako enparantzan.
- 11:00: Buruhandiak, enparantzan eta inguruetan.
- 11:30: Meza nagusia, Karmengo kaperan.
- 12:30: Bote eta toka txapelketa, enparantzan.
- 14:30: Bazkaria, Buruntz-Azpi elkartearen.
- 17:00: Gaztelu puzgarriak, Basaundi bailarako enparantzan.
- 17:30: Haurrentzako askaria.
- 20:00: Kontzertua, Lee Junior taldearen eskutik.

bailarako enparantzan. Haurrek ere izango dute dibertitzeko astia: apar festa antolatu dute teniseko pistan. Beroak gogor jotzen badu, freskatzeko aukera izango dute, hortaz.

Etxera afaltzera joan nahi ez duenak izango du kalean tripa betetzeko aukera: tortilla patata lehiaketa egingo dute, 19:30ean. Etxean eginak izan beharko dira tortillak, eta alde aurretik aurkeztu beharko dituzte. Afalostean, eta gaueko ordu txikiak arte, musikaren erritmoan dantza egin ahal izango dute festa zaleek. Ibai Berriak berbenaren eskutik lehendabizi,

eta DJ baten doinu elektronikoek astinduta gero.

San Inazio egunean, egun osoko programazio zabala prestatu dute. Ibilaldia egingo dute goizean goiz, enparantzatik abiatuta. Haurrentzako jolasak ere egingo dituzte, baina buruhandietatik ihesi ere egin beharko dute. Meza nagusiaren ondoren, toka eta bote txapelketa egongo da. Buruntzazpi elkarteak antolatuta, bazkaria egingo dute gero, eta haurrentzako puzgarriak eta askaria izango dira arratsaldean. Lee Junior taldearen kontzertuak itxiko ditu festak; 20:00etan hasiko du emanaldia.



Alkatea eta Megaba elkarteak, hitzarmena sinatzen. TXINTXARRI

Ekintza eta irteera ugari egin dituzte *Mingaina Dantzan* udalekuean. MINGAINA DANTZAN

# Bizipen ederrak euskaraz biziz igaro dute uda

Harrera ezinhobea izan dute 'Mingaina Dantzan' udalekuek. Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarteak arduratu da ekintzak antolatzeaz. Eredu euskaldunetako haurrak eremu hain ez euskaldunetakoekin nahastu dituzte, haien artean euskara sustatzeko

## Txintxarri

Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko helburua dute *Mingaina Dantzan* udalekuek. Amaitu berri dute lehenengo edizioa eta oso balorazio ona egin dute antolatzaileek.

Herriko Ttakun Kultur Elkarteak aritu da antolakuntza lanetan, Eusko Jaurlaritzarekin, EUDELekin, UEMArekin eta Ebete enpresarekin batera. Azken honetako arduradunak –Iñaki Eizmendi herritarrak– begirale eta koordinatzaileei formakuntza saioak eskaini dizkie. Eredu soziolinguistikoko ezberdinetatik datozen gazteen artean euskara sustatzeko teknika eta estrategiak landu zituzten horietan.

Izan ere, eremu euskaldun eta ez hain euskaldunetako 13 eta 14 urteko 29 gaztetxo elkartu dituzte udaleku horietan. Eguneroko bizimoduan euskara entzutera ohituak daudenak, proportzioan, gehiago izan dira, elkarrizketa euskaldunak

sustatze asmotan. Hala, Gasteiz, Barakaldo, Gernika, Azpeitia, Oiartzun eta Zumaiako lagunak elkartu dituzte Mundakan.

Udalekuan zehar egindako ikerketaren ondorioak jakitera emango dituzte urrian. Antolatzaileak "pozik" daude edukitako harrerarekin, eta gazteek eta gurasoek esperientzia "aberasgarria" izan dute.

## Bi helburu

*Mingaina Dantzan* udalekuen lehenengo edizio honek bi helburu nagusi zituen. Batetik, eremu hain ez euskaldunetatik datozen gaztetxoek aisialdi ekintza entretenigarriak bizitzeko euskaraz. Hartara, hizkuntza bera ongi pasatzearekin lotu

**13 ETA 14 URTE ARTEKO 29 GAZTE ELKARTU DITUZTE, UZTAILAREN 3TIK 14RA, MUNDAKAN**

dezaten. Bestetik, bilatu dute eremu euskaldunetatik datozenek ere euskarazko elkarrizketak mantentzea, gaztelarara jotzeko joera dutenen aurrean ere.

Oro har, balorazio "positiboa" egin dute, gehienbat nesken artean.

## Sare sozialetan aktibo

Sare sozialetan argazki, bideo eta eduki ugari partekatu dituzte udalekuek begirale eta koordinatzaileek.

Horiei esker, gurasoek euren seme-alabek zein ondo pasa duten ikusteko aukera izan dute. Datozen urteetara begira, partaide berriak animatzeko balio izango dutela uste dute antolatzaileek.

Izan ere, *Mingaina Dantzan* udalekuek aurrera jarraituko dute, eta gaztetxoaren artean euskara sustatzeko ekintza berritzaile honek jarraipena edukiko du. Aurtengo esperientzia, behintzat, "ezinhobea" izan da haientzat.



Transformadorea, etxebizitza batetik ikusita. TXINTXARRI

## Zataraingo obrek ezinegona sortu dute San Frantzisko kalean

Transformadore elektriko bat jarri dute etxebizitzetatik gertu, eta kutsaduraren beldur dira bizilagunak

### Adrian Garcia

Etxe ondoko obrak beti dira deserosoak: hautsa, zikinkeria, zarata, errepideak moztuta, kamioien eta hondeamakinaren etengabeko joan-etorria... Baina Zatarraingo etxebizitzaren lanek bizilagunengan sortu duten ezinegona muga horiek apurtu ditu: kutsaduraren beldur dira. Izan ere, San Frantzisko kaleko 20, 22 eta 24 etxebizitzetako bizilagunek salatu dutenez, transformadore elektriko bat ezarri diete etxetik metro eskasera.

Julia Otxoa idazlea eta Rikardo Ugarte eskulturgilea etxebizitza horietako batean bizi dira. Beste bizilagunekin batera, idazki bat aurkeztu diote udalari, obren inguruko informazioa jasotzeko. Obretako behargin batek esana baieztatu dute etxe ondoan ezarritakoa transformadorea dela. "Susto handia hartu genuen.

Egun batetik bestera transformadore bat jarri ziguten etxe azpian. Ez dugu ulertzen, urrutia jarri ahal izateko lekua sobera baitago", azaldu du Otxoak. Balkoetik hamar metro ingurura dute transformadorea.

Aste honetan San Frantzisko kaleko bizilagun batzuk Jesus Zaballos alkatearekin bildu dira. Alkateak baieztatu dienez, obrak lizentzia guztiak indarrean ditu, eta dena legearen arabera egiten ari dira. Otxoak eta Ugartek ez dute zalantzan jartzen udalaren bertsioa. Haiek nahi dutena da lizentzia horiek ikusi, hor zehazten baitira aparatuen igorpen elektromagnetikoak. "Horrek nolabaiteko lasaitasuna emango liguke". Eusko Jaurlaritzako Industria sailaren eskumena da transformadorea, eta udala konprometitu da irailtik aurrera lizentziak erakustera.



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

# Santa Anako ospakizunak

## Kirola, azoka eta pintxoa

Santa Anaren omenez, jai eguna ospatu ohi da Lasarte-Orian, uztailaren 26an. Hainbat ekintza finko bilakatu dira egun horretan. Santa Ana pala txapelketa da horietako bat. 36.a izan da aurtengoa, eta asteazkenean jokatu zuten final nagusia; Astiazaran-Arluziaga bikoteak eskuratu zuten garaipena azkenean. Erketz taldearen aurrekuarekin hasi zen Santa Ana eguna. Aurretik meza egin zuten, eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako hamaiketako gero. Ohiko artisautza azoka ere ez zen falta izan.



Santa Ana pintxoa dastatzeko baliatu zuten askok goiza. Irudian, Viña del Mar tabernakoa. TXINTXARRI



Erketz Dantza Taldeko kideak, Santa Anako karkaban dantzan. TXINTXARRI



Hondarribiako Ramon Roteta sukaldariak jaso zuen artengoan Unai Zabalak egindako aitza. TXINTXARRI



Eguraldia lagun, jende ugari gerturatu zen igandean San Ana artisautza azokara. TXINTXARRI



Tradizioari jarrikiz, mezarekin hasi zuten Santa Ana eguna askok. TXINTXARRI



Meza ondoren Ttakun Kultur Elkarteak hamaiketakoa prestatu zuen. TXINTXARRI



Palako final txapelketa estua eta emozioz beterikoa jokatu zuten. TXINTXARRI



Iñigo Arluziaga eta Xenki Astiazaran garaile izan dira aurten ere. TXINTXARRI

# Urteko kontuak umoretik gogora ekarriz

"Bando, bando, alkateak esan do". Hitz horiek entzun orduko bada irrifarreari eutsi ezin dionik. Astezkenean, hilaren 26an, Santa Ana eguna ospatu zuten lasarteoriatarrek, eta ez zen falta izan eguneko ekitaldi izarra: parodia. Urteko gaiak umoretik jorratu dituzte aktoreek: euskararen maratonia, irailean hipodromoan egingo den Kutxa Kultur Festibala, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko obrak, Hipodromo etorbidean eraikitzen ari diren etxebizitzak eta Goiegiren ordezkoa izango den Burger King jatetxea. Horiek izan dira oholtza gainean aipatu ziren gaietako batzuk. Azkenean, errugabe gutxi izan dira: "Sutara kondenatuak izan zarete, eta sutara joango zarete", ebatzi dute basajaunek.

Erketz Dantza Taldea izan da aurtengo parodiako omendua, eta Sorgin Dantzako irudi baten oroigarria jaso dute, Ttakun Kultur Elkartearen eskutik.

Parodian parte hartu duten aktore, trikitilari eta suhiltzaileek Virgen de Guadalupe elkartearen afaltzu dute. Ondoren, desfilean atera dira Okendo plazarantz.



Erketz Dantza Taldea izan zen gaueko omendua. Irudian, oroigarria jasotzen, Ttakunen eskutik. TXINTXARRI



Aktoreak, oholtza gainean. TXINTXARRI



Parodiako aktoreen taldea, Okendo plazan, afaltzera joan aurretik. TXINTXARRI



Erketz taldekoak, Sorgin Dantza dantzaten. TXINTXARRI





Pregolaria eta alkatea, oholza gainean. TXINTXARRI



Errudunak sutara kondenatu ondotik, suhiltzaileek itzali behar izan zuten sua. TXINTXARRI



Virgen de Guadalupe elkartean afaldu zuten parodian parte hartu zutenak. TXINTXARRI

# Herritarrak ederki aritu dira Getaria-Zarautzen

Asteburu honetan jokatu da hemen inguruko zeharkaldi jendetsuena: Getaria-Zarautz. 25 lasarteoriatarrek eman dute izena ia hiru kilometro igerian egiteko erronkan, eta 23k bukatu dute. Maila ederra erakutsi dute gure herritik joandako parte hartzaileek

## Txintxarri

Ia bi mila pertsonak bukatu dute Getaria-Zarautz zeharkaldia aurten. Lasarteoriatarrek izan dira horietatik 23. Ez zeukaten erronka makala aurrean: igerian osatu behar izan zituzten ia hiru kilometro (zehazki, 2.850 metro). 25 herritarrek eman zuten izena, eta ia guztiek bukatu dute. Pozik egoteko moduko datua da.

Distantzia luzeko igerilari zaildua da Xabier Elizegi, eta erakutsi zuen asteburuan. Bera izan da lasarteoriatar azkarrena. Sailkapen orokorrean 34. izan zen, eta lehenengo hamarren artean sartu zen bere kategorian (*Master1*), bederatzigarren denbora onena eginda: 36.17. Izaskun Salazar eta Juan Vicente Martin izan ziren hurrengoak: 40.50eko denbora egin zuten biek.

Iñaki Salaberria irundarrak eta Itxaso Alonso bilbotarrak irabazi zuten Getaria-Zarautz zeharkaldia. 31.47 eta 35.24an geratu zituzten kronometroak, hurrenez hurren.

Aurreko urteetan baino herritar dezente gehiagok amaitu dute proba aurten. Ia %50 gehiagok, aurreko bi edizioekin alderatuta: 23 lasarteoriatarrek (bederatzia emakumek eta hamalau gizonek) osatu dute aurten 2.850 metroko ibilbidea.



Ia bi mila igerilarik bukatu dute aurtengo Getaria-Zarautz zeharkaldia. KULTURALDIA

## Herritarren emaitzak

- 34. Xabier Elizegi: 36:17.
- 183. Izaskun Salazar: 40:50
- 184. Juan Vicente Martin: 40:50
- 266. Enaitz Ibarburu: 42:27
- 537. Laura Igea: 46:00
- 621. Maider Esnaola: 47:12
- 676. Garikoitz Lopetegi: 48:00
- 801. Jorge Iglesias: 49:22
- 913. Oscar Gil: 50:17
- 925. Mikel Izagirre: 50:26
- 992. Zigor Gallardo: 51:02
- 1074. Iban Iraola: 51:51
- 1102. Elixabet Arteaga: 52:13
- 1201. Miguel Angel Fernandez: 53:18
- 1266. Nerea Arteaga: 54:11
- 1456. Iratxe Beitia: 57:07.
- 1473. Iñigo Arias: 57:19
- 1575. Naroa Salsamendi: 59:01
- 1597. Gorka Olaiz: 59:24
- 1643. David Morales: 1:00.
- 1651. Maite Salazar: 1:00
- 1822. Yoana Gonzalez: 1:06
- 1930. David Montejo: 1:16

## Asier Pozo kadeteak 7. postua eskuratu du Ordizian

Buruntzazpiko txirrindulariak han eta hemen lehiatu dira asteburuan. Juniorrak, Oñatin; kadeteak, Ordizian

## Txintxarri

Buruntzazpi taldeko txirrindulari gazteak ez dira geldirik egon asteburuan. Juniorrak Oñatin aritu dira, Mendiko Kriteriumeko lehenengo etapan. Kadeteek, aldiz, Ordizian eragin diete pedalei. Ederki aritu dira denak.

Esan bezala, Ordizian aritu ziren kadeteak, Txapel Gorri lasterketaren 44. edizioan. Asier Pozo izan zen taldekideen artean azkarrena. Zazpigarren denbora onena egin zuen: 01.32,30. Astea joan eta astea etorri, maila bikaina erakusten segitzen du herritar gazteak. Aaron Anzizar eta Markel Aristegi taldekideek ere lan txukuna egin zuten. 50. postuan helmugaratu zen Anzizar, kronometroa 01.36,26an geratuz. Handik gutxira ailegatu zen Aristegi: 60. izan zen eta 01.38,49ko denbora egin zuen. Taldeka, zortzigarren izan zen



Kadeteen tropela, Ordizian. TXINTXARRI

Buruntzazpi. Oñatiko Mendiko Kriteriumean ere egon da presente Buruntzazpi taldea. Lehenengo etapa jokatu dute asteburuan, emaitza hauekin: 26. izan da Oier Urbizu, 01.48,29ko denborarekin. 70. tokian iritsi da Manex Altuna, 01.54,52 eginda.

## Abuztuaren 6ra arte egongo da itxita Udal Kiroldegiak

Lasarteoriatarrek ezin izango dute Maialen Chourraut Udal Kiroldegia erabili abuztuaren 6ra arte. Udaleko Kirol Zerbitzuko kideek aditzera eman dutenez, mantentze lanak egin behar dituzte kirol instalazioetan; horregatik erabaki dute bi astez ixtea Udal Kiroldegia. Zehazki, uztailaren 23tik abuztuaren 6ra bitarte, biak barne.

## Maria Eugi, absolutu txapelketako finalerdietatik gertu

Lan ona egin du herriko atleta Maria Eugi absolutu mailako txapelketan, Bartzelonan. Atletico San Sebastian taldean aritzen da abiadura lasterkari gaztea. 200 metroetan aritu zen, ederki gainera. 25,32 segundoko marka eginda, finalerdietara sailkatzetik oso gertu geratu zen. Denboraldi bikaina osatu du aurten lasarteoriatarrek.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### IGERIKETA

#### ZEHARKALDIK

**Xabier Elizegi herritarrak XIV. Txingudiko zeharkaldian parte hartuko du.**

Astelehena. 11:30. Irun.

#### GAZTETXOEN ZEHARKALDIK

**Herriko zenbait igerilari gazteak XIV. gaztetxoentzako Txingudiko zeharkaldian parte hartuko dute, 700 metroko frogan.**

Astelehena. 11:00. Irun.

### ESPAINIAKO TXAPELKETA

**Buruntzaldea IKT-ko Leire Martin, Ainhoa Martin eta Paula Sevillano igerilariak infantil mailako Espainiako Txapelketan lehiatuko dute.** Ostegunetik igandera. Malaga.

### ARRAUNA

#### GIPUZKOAKO LIGA

**Intza Fernandez herritarrak eta Donostiarra traineruak Gipuzkoako Ligako VIII. jardunaldia jokatu dute.** Larunbata. 18:00. Lekeitio.

### ZALDI LASTERKETAK

#### DIARIO VASCO SARIA

**Zaldi lasterketen denboraldiko 8. jardunaldia jokatu da Lasarte-Oriako Hipodromoan. Diario Vasco babestutakoa izango da eguneko sari nagusia.**

Igandea. 17:30. Hipodromoa.

#### URREZKO KOPA

**Zaldi lasterketen denboraldiko hitzordu nagusia jokatu da abuztuaren 15ean. Maila handiko**

**zaldiek lehiatuko dute Urrezko Kopa.**

Abuztuak 15. 17:30. Hipodromoa.

### HERRI LASTERKETAK

#### HERRI KROSSA

**Raul Gomez Margallo eta David Marrero herritarrak XXXVII. Amarako Herri Krossean lehiatuko dira, 4,2 kilometroko frogan.**

Igandea. 11:00. Donostia.

### FUTBOLA

#### PROFESIONAL MAILAK

**Iraia Iparragirrek eta Ander Bardajik Ligari ekingo diote. Valentziaren kontra lehenak, irailaren 2an.**

**Bigarrenak Numantziaren kontra, abuztuaren 20an.**

Zubieta eta Soria.

### TXIRRINDULARITZA

#### KADETE ETA JUNIORRAK

**Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako txirrindulariak Mutiloan eta Zumaian lehiatuko dira.**

Igandea eta astelehena. Zumaia eta Mutiloa (Nafarroa).

# Donostiarra, bandera lortzetik 32 ehunekotara

Euskotren ligarako sailkatu ez diren arren, lan bikaina egiten ari da Donostiarra traineruaren taldea, Intza Fernandez herritarra barne. Pasaiaiko Madalen Jaietako bandera lortzetik soilik 32 ehunekotara geratu dira asteburu honetan

## Txintxarri

Hatz mamiekin ukitu du Donostiarrak Madalen Jaietako II. traineru ikurrina. Proba hori irabaztetik 32 ehunekotara besterik ez ziren geratu Donostiarrako arraunlariak, Intza Fernandez herritarra barne. Euskotren ligara sailkatzeko txartela ez dute lortu, baina lan bikaina egiten ari dira aurten. Uneotan Gipuzkoako Ligan daude murgilduta.

Hernani, Donostiarra, Deustu eta Lea-Artibai. Lau talde horiek lehiatu ziren iragan larunbatean Pasaian, aipatu proban. Hernaniko arraunlariak izan ziren bizkorrenak, baina oso gutxiagatik: 32 ehunekotara geratu zen Donostiarra. Bost segundo gehiago behar izan zituen Deustuk ibilbidea osatzeko, eta hamalau segundo geroago helmugaratu zen Lea-Artibai.

Bihar bertan bueltatuko da itsasora Donostiarra. Gipuzkoako Ligako zortzigarren jardunaldia jokatu dute Lekeition. Abuztuan ere ez dira geratuko, hainbat hitzordu baitaukate egutegian gorriz markatuta: Gipuzkoako Ligako jardunaldi bana jokatu dute hilabete horretako aste bakoitzean. Hilaren 5ean, larunbatarekin, Pasai Donibanen eragingo diete



Donostiarrako arraunlariak, ahalegin betean. INTZA FERNANDEZ

arraunei. Handik astebetara, berriz, Ondarroan lehiatuko dira. Gipuzkoako Ligako hamargarren jardunaldia izango da hori. Hiru egun geroago, hilaren 15ean (asteartean), Hernaniko uretara aterako du trainera Donostiarrak. Astebeteko atsedenaldia hartuko dute gero, eta abuztuaren 27an bueltatuko dira konpetitzera, Gipuzkoako Ligaren hamabigarren jardunaldian lehiatuz. Donostian jokatu dute proba hori. Gero, irailean, urteko zita garrantzitsuenetako bat:

Kontxako Bandera. Dena dela, asko falta da horretarako oraindik.

## San Juan, nagusi asteburuan

Euskotren ligan asteburu honetan jokatu diren bi probetan (Caixabank bandera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren bandera, hain justu) nagusi izan da San Juan Iberdrola, eta sailkapen nagusiko liderra da, hamabost punturekin. Hamahirurekin, bigarren tokian da Hibaika; Oriok zortzi ditu eta lau Arraun Lagunakek.

## SD Huescan jokatu du Ander Bardajik datozen hiru urteetan

Realarekin zuen kontratua eten eta bigarren mailan jokatzeko duen SD Huescak fitxatu du lasarteoriatarra

## Txintxarri

Aurretik erronka berria du Ander Bardajik Huescan. Atezain lasarteoriatarrak hurrengo hiru urterako kontratua sinatu du bigarren mailan jokatzeko duen taldearekin.

Realeko lehenengo taldera igo zuten iaz, baina ez zuen zorte handirik eduki. Izan ere, Geronimo Rulli atezainak jokatu zituen Ligako eta Kopako norgehiagoka guztiak. Halaber, Toño Ramirez izan zen jokalaria

argentinarren lehenengo ordezkaria, eta ez du aukerarik izan Realeko lehenengo taldean bere maila erakusteko.

2020ra bitarteko kontratua sinatu berri du Bardajik, eta hiru denboraldi horietan sailkapeneko goiko partean egoteko borrokatuko du, bere taldekideekin batera.

Aurten, seigarren amaitu dute liga, eta lehenengo mailara igotzeko kanporaketera sailkatu dira. Igoera eskuratu duen Getaferen kontra galdu zuten.

## Hainbat marka ondu ditu Unai G. Somovillak Bartzelonan

Lasarteoriatar gazteak lau segundo bizkorrago egin du igerian 100 bizkar eta bular probetan

## Txintxarri

Merezitako oporrez gozatzen ari da egunotan Buruntzaldea IKTKo igerilari gazte Unai G. Somovilla, lan ederra egin izanaren satisfazioz. Alebin mailako Espainiako txapelketan lehiatu zen pasa den asteburuan, Bartzelonan. Hainbat marka ondu zituen herritarrak.

Bizkar estiloko 100 metroko proban aurretik zeukan marka birrindu egin du Somovillak. 01.11,53koa zen lehen (igerileku luzean), eta 01.07,67koa orain. Ia lau segundo bizkorrago egin

du igeri txapelketa honetan. Bizkar estiloan ederki aritu da, eta baita bularrekoan ere, 100 metroko distantzian. Aurreko marka onena 01.20,67an zeukan ezarrita, eta nabarmen hobetu du hori ere: kronometroa 01.16,45ean geratu du Bartzelonan. Lau segundo eta 22 ehuneko bizkorrago osatu du proba hori. Taldeko absolutu mailako errekor berria ere ezarri du Somovillak. Bestalde, infantil mailako Getaria-Zarautz zeharkaldia irabazi zuen igandean. 800 metro 11.18an osatu zituen.



TXINTXARRI

## Urrezko Koparako prestatzen

Gran Torino eta Zascandil zaldiak izan ziren atzo arratsaldeko protagonistak Hipodromoan. Abuztuaren 15ean jokatu den Urrezko Koparako bi prestaketa lasterketak irabazi zituzten, zaldi zaharrenak eta hiru urtekoenak, hurrenez hurren. Beste behin ere, jende ugari animatu zen igande arratsaldea zaldi lasterketak ikusten pasatzera.

## Andorra Challenge MTB proban lehiatu da Iñaki Letamendik

Iñaki Letamendi lasarteoriatarra Andorra Challenge MTB proban lehiatu da asteburuan. BTT modalitateko lasterketa da, eta hainbat distantzia ditu. Herritarrak 50 kilometroko ibilbidea osatu zuten.

Hiru ordu, 38 minutu, 48 segundo eta 94 ehunekotan geratu zuten kronometroa Letamendik. Batez beste 12,61 kilometro


ordukoa izan zen abiadura. Denera 407 pertsonak eman zuten izena proban, eta 319k bukatu, parte hartzaileen %78k. Hau da, bostetik bat ez zen helmugaratu. Proba benetan gogorra herritarrak burutu zuena.

Larunbatekoarekin aski ez, eta igandean 15 kilometroko Pic Negre trail proba egin zuen Letamendik. 650 metroko desnibel positibo metatua dauka mendi lasterketa horrek. 36. postuan iritsi zen helmugara, 02.19.28,74ko denborarekin.

# PLAZAN BAZAN

## Gameluaren itzala

Zein da, zortzi itzal hauen artean, erdian dagoen gamelu xebleareari dagokiona?




Hilabeteko azken Txintxarri aldizkarian haurrentzako denborapasak aurkituko dituzu: jolastu Maripurtzil eta Pellozirirekin!

Soluzioak eta jolas gehiago, [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) atarian. Sartu eta gozatu!

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

## Udaberri



## engainaria



Sei zati hauetatik bakarra dago irudi handitik hartuta. Zein da?

# Hau anabasa



Maripurtzilek udalekura joan nahi du lagunekin, baina ez du bere gela inoiz txukuntzen eta orain ez ditu harako beharko dituen gauzak aurkitzen. Non ote dira...



- 1 Bainujantzia
- 2 Largabista
- 3 Argazki-kamera
- 4 Eskumuturreko ordulari gorria
- 5 Betaurreko laranja
- 6 Lotarako zakua

Hemen duzun saskiaren eta marrazkikoaren artean lau diferentzia daude. Zeintzuk dira?



# Dadoa

Zein kubo aterako zaio Maripurtzili sei aldeak tolestu eta itsasten dituenear, A, B, C edo D?



# Urratsez Urrats

Lagundu detektibeari arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan, giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean.



# ONdo banatu

Animaliaz osatutako taula hau lau zatitan banatu behar duzu. Zati horietariko bakoitzak lau animalia ezberdin behar ditu bere baitan. Hau da, ardia, txerria, ahatea eta igela.

1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16

## AZOKA TXIKIA

## LAN ESKAINTZAK

## ESKAERA

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest, baita ospitalean zaintzak egiteko ere. 600767073

Pertsona bat adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala

ere lan egiteko prest eta baita haurrak zaintzeko ere. 674462564

Pertsona bat aurkezten da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest eta baita haurrak zaintzeko ere. 617853042

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna

bezala ere lan egiteko prest, baita ospitalean zaintzak egiteko prest ere. 602314670

Lan bila nabil. Asteburuetan eta 11:00etatik 14:30etara lan egin dezaket. Gauetan ospitaleetan ere lan egin dezaket. Telefonoa: 690146067

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko (etxean eta ospitalean ere bai). Asteburuetan, jaiegunetan zein gauetan lan egiteko prest. 606661048 / 943-404015


Lan bila nabil. Asteburuetan eta 11:00etatik 14:30etara lan egin dezaket. Gauetan ospitaleetan ere lan egin dezaket. Telefonoa: 690146067

## BESTELAKOAK

## ESKAITZAK

Neurri desberdinetako kristalezko poteak oparitutako nituzke. 688 633 631.

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

\*Abuztuan ez da Manttangorri zerbitzurik egongo

## JAIOTAKOAK

**Matias Andre Aquino Antunes.** Ekainaren 30.  
**Navela Bouazza.** Uztailaren 18an.  
**Duaa Bouazza.** Uztailaren 18an.  
**Libe Francisco Gimeno.** Uztailaren 19an.  
**Unax Polaina Fernandez.** Uztailaren 23an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 28 ACHA-ORBEA

Larunbata, 29 GANDARIAS

Igandea, 30 GANDARIASL

Astelehena, 31 GANDARIAS

Astearte, 1 URBISTONDO

Asteazkena, 2 ACHA-ORBEA

Osteguna, 3 DE MIGUEL

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia**

**eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## ESKELAK

**ESKELAK JARTZEKO:**  
**Txintxarri erredakzioan**  
**943 37 14 48**

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

**Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan**

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 20160 LASARTE-ORIA  
 G-20407557

## Erredakzioa

Inigo Gonzalez, Maddi Noriega,  
 Martin Vicoso, Lorena Lujanbio  
 eta Adrian Garcia.

## Publizitatea

Arantxi Zulaika.

## Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
 Ane Labaka, Mailu Arruti,  
 Asier Odriozola, Maider Segurrola,  
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe.

## Informatikoa

Asier Aztiria.

## Administrataria

Nerea Garziarena.

## PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

## Lege Gordailua:

SS-513/94  
 ISSN: 1134-0053  
 Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
 UDALA

LAGUNTZAILEAK




**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Saillburuordetza



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

## ZORION AGURRAK



**Haritz**  
Etxeke printzipeari lau tirakada belarritik. Muxu handi bat familia osoaren partetik!



**Ekhi**  
Zorionak etxeke txikiari! 2 urte. Ze azkar pasa diren, eta ze handia egin zaren! Infinitu maite zaitugu. Nahia, Ama eta Aita.



**Ainara eta Danel**  
Zorionak xomorro parea! Ainara, konturatzera urtebete! Eta Danel, zu ere has zaitezke merendola antolatzen... belarriak gorri-gorri uziko dizkizuegu! Muxu potolo bana!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**

Txintxarri.eus-en [txintxarri.eus/zorionagurra](http://txintxarri.eus/zorionagurra) eta [Bidali zure zorion agurra](http://Bidali.zure.zorion.agurra) formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Bulegoan**

Etor zaitez Ttakunen bulegora edo deitu 943 37 14 48 telefonora.

## SUDOKUA

					3	2		1
	1	4		6			3	
9			7		1	8		6
7	9		4	8		1		
4	6		3	1				9
		1				4	6	
5	7			9	4			
	4	9	2	3				
8	2					9	1	

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## AGENDA

## UZTAILAK 28

**ZUBIETA Festak**

Santio festetan murgilduta dira Zubietako bizilagunak, eta askotariko ekintzak izango dira gaurtik astelehenera bitartean.  
10:00etan: Jolasen hasiera.  
13:30ean: Urmeen bazkaria: bakoitzak berea ekarri beharko du, jai batzordearen kontu izango dira postrea eta sorpresa.  
16:00etan: Twister erraldoia.  
17:00etan: Txokolatada eta buruhandiak.  
18:30ean: Apar festa.  
19:30ean: Sardina eta piper jana.  
22:00etan: Bertsolariak: Ane Labaka, Beñat Gaztelumendi, Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluze. Gai jartzaila: Amaia Agirre.

## UZTAILAK 29

**LASARTE-ORIA Festak**

San Inazio jaietan murgilduko da. 19:00etan: Haurrentzako tailerrak.

21:00etan: Rock kontzertuak  
*Basaundin.*

**ZUBIETA Festak**

Santio festetan murgilduta dira Zubietako bizilagunak, eta askotariko ekintzak izango dira gaurtik astelehenera bitartean.  
09:30ean: Meza  
12:00etan: Sagardo dastaketa eta pintxoak, Errebote plazan.  
14:00 Jubilatuen bazkaria.  
14:00etan: Paella prestaketaren hasiera.  
15:00etan: Paella jatea.  
18:00etan: Burrumba elektrotxaranga.  
23:30ean: Zaparra musika taldearen kontzertua.  
Ondoren, Laiotz musika taldearen emanaldiarekin, dantza egiteko aukera izango da, goizaldera arte.

## UZTAILAK 30

**LASARTE-ORIA Festak**

San Inazio jaietan murgilduko da Basaundi datozen egunetan, eta

askotariko ekintzak izango dira herritarren gozamenerako.  
11:30ean: Herriko barrenea frontoian.  
12:00etan: Ezkonduen eta ezkongabeen futbol partidua frontoiaren ondoko areto futboleko eremuan.  
12:30ean: Pintxo potea auzoko tabernetan barrena, eta txoznan.  
16:30ean: Mus txapelketa Basaundi bailarako enparantzan.  
17:00etan: Apar festa tenisako zelaietan.  
19:30ean: Patata tortila lehiaketa (etxean eginda eraman behar dira, ordubete lehenago).  
22:00etan: Dantzaldia Ibai Berriak taldearen eskutik.  
01:00etan: DJa Basaundi bailarako enparantzan.  
*Basaundin.*

**ZUBIETA Festak**

Santio festetan murgilduta dira Zubietako bizilagunak, eta askotariko ekintzak izango dira gaurtik astelehenera bitartean.

16:00etan: Mus txapelketa  
16:30ean: Gaztetxoan antzerkia Kaxkapen.  
17:30ean: Toka txapelketa.  
00:00etan: Musika emanaldiak; Odolaren mintzoa, Gozategi eta DJ Arosekin goizaldera arte parranda luzatzeko aukera izango da.

## UZTAILAK 31

**LASARTE-ORIA Festak**

San Inazio jaietan murgilduko da Lasarte-Oriako Basaundi auzoa datozen egunetan, eta askotariko ekintzak izango dira herritarren gozamenerako.  
09:00etan: Martxa erregulatua. Basaundi bailarako enparantzatik irteera.  
10:00etan: Galeper botatzea Buruntz Azpi elkartearen eskutik.  
11:00etan: Haur jolasak Basaundi bailarako enparantzan.  
11:00etan: Buruhandiak Basaundi bailarako enparantzan.  
11:30ean: Meza Nagusia Karmengo kaperan.

12:30ean: Bote eta toka txapelketa Basaundi bailarako enparantzan.  
14:30ean: Bazkaria Buruntz Azpi elkartean.  
17:00etan: Gaztelu puzgarriak Basaundi bailarako enparantzan.  
17:30ean: Haurrentzako askaria.  
22:00etan: Lee Junior taldearen eskutik, kontzertua.  
*Basaundin.*

**ZUBIETA Festak**

Santio festetan murgilduta dira Zubietako bizilagunak, eta askotariko ekintzak izango dira gaurtik astelehenera bitartean.  
09:00etan: Zikiro prestaketaren hasiera.  
10:30ean: Meza  
11:30ean: Zubietarren arteko errebote partida.  
14:00etan: Zikiro jatea.  
18:00etan: Joko Garbi erakustaldia.  
19:00etan: Emakumezkoen erakustaldia, herri kiroletan.  
Ondoren, buruhandiak.  
00:00etan: Herriko jaien amaiera traka. Amaitzeko, musika txoznan.

## BITXIKERIAK

# Eten bat, euskara parodian txertatzeko

1951. urtean lehen aldiz parodia antolatu zutenetik, urtero-urtero egin da antzezlan, 1995ean izan ezik. Ttakun Kultur Elkarteak hartu zuen hurrengo urtean parodiaren ardura, eta ordutik euskaraz ere egiten da. Desadostasun asko izan ziren udalarekin.

## Adrian Garcia

Parodia beti egon da lotuta Santa Ana egunarekin Lasarte-Orian. Beste zenbait lekutan egiten duten antzera, antzezlan baten bitartez, eta umorea eta ironia lagun, urteko gertaera nagusiak era kritikoan jorratzen dituzte aktoreek. Egun errotutako tradizioa izan arren, galtzeko zorian egon izan da parodia.

Manuel Sagardiak berreskuratu zituen herriarentzat Santa Ana jaiak, eta haren eskutik egin zen lehen parodia, 1951. urtean. Sagardia hil ondoren, haren seme Julianek hartu zuen



1996tik aurrera sartu zen euskara parodian. Irudian, 2004ko entsegu bat. TXINTXARRI

parodiaren antolakuntza. Azkeneko udalak hartu zuen ardura hori, eta, 1991n, Santanatarrak taldea sortu zen eginkizun horretarako.

Baina, denboraren poderioz, parte hartzea gutxitzen joan zen elkartean, harik 1995ean parodia bertan behera geratu zen arte. Ia mende erdiz urtero-urtero egin ondoren, tradizioa azkenekotan zen.

## Elebitan

Ttakun Kultur Elkarteak hartu zuen parodiaren lekukoa hurrengo urtean. Eta etenaldiak izan zuen ondorio baikorrik: lehen aldiz euskara txertatu zen, gaztelera guztiz baztertu gabe. Hain justu, Ttakunek antolatzen duen ekitaldi elebidun bakarra da.

Horretan ere Sagardia sendiak badu zerikusia. Manuelen bilobak, Nekane Sagardiak, bultzatu zuen Santa Anako ekitaldi izarraren suspertzea.

Baina ez zuen bide samurra izan Ttakunek parodia berreskuratzeko. Garai hartako

TXINTXARRI-n irakur daitekeenez, udalak kultur elkarteari derrigortu zion Santanatarren izenean antolatzea parodia, horretarako diru laguntzak jaso nahi bazituen. Azkeneko, Ttakunek amore eman behar izan zuen, eta Santanatarren izenean antolatu zen ekitaldia, nahiz eta talde hori ordurako desagertua egon.

## Udala, deseroso euskararekin

Euskara ere izan zen eztabaida iturri. Izan ere, orduko udalak nahiago zuen gaztelania hutsean izatea gidoia, eta antolatzaileei ohartarazi zien "jendea haserretu" egingo zela.

Herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, eta erdaldunak baztertu gabe, lehengo euskarazko parodia horretan itzultzaile bat erabili zuten, bi hizkuntzen arteko lotura egiteko. Baina, nola ez, funtzio komikoa ere betetzen zuen pertsonaia horrek. Erdaldunei istorioaren haria jarraitzen laguntzen zien, baina, era berean, itzulpen "bitxiak" egiten zituen.

## Oporretara goaz!

Hurrengo Txintxarri aldizkaria irailaren 8an kaleratuko dugu. Oharrak, zorion agurrak, gutunak... bidaltzeko:

txintxarri@txintxarri.eus • 688 68 35 10



txintxarri

Josue  
Igeltseritza

## Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak  
Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak  
Gremioen koordinaketa

606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net